

**Izenpetze ekitaldia**  
**Hitzarmen-markoa 2017-2022**  
Baiona, 2017ko otsailaren 16a

•

**Signature**  
**Convention-cadre 2017-2022**  
Bayonne, le 16 février 2017

### Une nouvelle convention-cadre conclue pour la période 2017-2022

Au croisement des objectifs fixés par l'Office Public de la Langue Basque (OPLB) dans son projet de politique linguistique et des missions et activités de l'Académie de la Langue Basque Euskaltzaindia, les deux partenaires ont signé le 24 janvier 2008, puis renouvelé jusqu'en 2016, une convention-cadre ayant pour objectif de développer et de structurer un partenariat entre les deux organismes, et par là même, d'inscrire l'accompagnement financier de l'OPLB en cohérence avec ce partenariat.

Dans la continuité des conventions-cadre précédentes et après évaluation positive des travaux menés ces dernières années, l'OPLB et Euskaltzaindia réaffirment leur volonté commune de **pérenniser et consolider le partenariat en place pour la période 2017-2022**. Cette nouvelle convention-cadre précise la nature des travaux susceptibles d'être menés en concertation par les deux organismes, et fixe les axes de coopération et les obligations de chacun.

### 2017-2022 epealdirako izenpetzen den hitzarmen-marko berria

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) Hizkuntza politika proiektuan finkatu xedeen eta Euskaltzaindiaren eginkizunen eta egitasmoen juntan, bi partaideek hitzarmen-marko bat izenpetu zuten 2008ko urtarrilaren 24an eta eraberritu zuten 2016 arte, bi erakundeen arteko lankidetzaz garatzeko eta egituratzeko, eta bide horretatik ekarri EEPk diru-laguntzak lankidetzaz horretan finkatu norabideekin bat egin zezan segurtatzeko.

Aitzineko hitzarmen-marko horien jarraipenean eta azken urte hauetan burututako lanen ebaluazio baikorra egin ondotik, **indarrean den partaidetza iraunkortzako eta indartzeko nahikaria berretsi dute bi partaideek, 2017-2022 epealdirako**. Hitzarmen-marko berri honek, bi erakundeek elkarraditurik egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten ditu, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatzen.



Les axes du partenariat 2017-2022 (détail dans la documentation jointe) :

➤ **Soutien aux éditions d'Euskaltzaindia** : ouvrages concernant le Pays Basque de France, comme la publication d'écrits ou d'anthologies d'écrivains du territoire ;

➤ **Analyse** par Euskaltzaindia **de la qualité de la langue** des projets d'édition présentés dans le cadre de l'Appel à projets action linguistique organisé par l'OPLB en lien avec le Gouvernement Basque ;

➤ **Conseil** à l'OPLB pour les demandes reçues en matière de graphie adaptée pour les **toponymes de langue basque** ;

➤ **Validation linguistique** des publications du Centre pédagogique Ikas ;

➤ **Promouvoir Euskaltzaindia** dans la société : faire connaître les travaux d'Euskaltzaindia et mettre en lumière ceux portant sur la qualité de la langue.

➤ **Un avenant annuel à la convention-cadre** La convention cadre prévoit par ailleurs que, sur la base des axes de partenariat fixés et des priorités convenues, les deux organismes élaborent chaque année un **avenant à la convention-cadre** pour préciser les **modalités opérationnelles du partenariat**, les **programmes éditoriaux** et le montant de **l'aide financière** de l'année versée par l'OPLB à Euskaltzaindia au titre de l'année en cours.

2017-2022 epealdiko partaidetzaren lan lerroak (zehaztasunak ondoko dokumentuetan):

➤ **Euskaltzaindiaren argitalpenak sustatzea**: Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herriari dagozkion argitalpenak, lurraldeko gaiak, idazle batzuen idazlan ala antologia batzuen argitaratzeak bezala ;

➤ Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin antolatzen duten hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren baitan aurkeztutako **argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa**;

➤ **Toponimoen grafia egokiari buruz** EEPk ukaiten dituen galderei erantzuteko **aholkuak** ematea;

➤ **Hizkuntza baieztapena** segurtatzea Ikas pedagogia zentroaren argitalpen proiektuetan;

➤ **Euskaltzaindiaren gizarteratzea**: Euskaltzaindiak euskararen kalitatearen zaintzearen alde eta hobetzearen alde eramaten dituen lanen ezagutaraztea.

➤ **Hitzarmen-markoaren urteroko eranskina**. Hitzarmen-markoak aurreikusten du ere bestalde, finkatu diren lehentasunetan oinarrituta, bi erakundeek urte guzietan **hitzarmen-markoari lotu eranskina** izenpetzea. Eranskin horretan jasotzen dira **urteko lankidetzaren nondik norakoak, egitaraua, egitura bakoitzaren egitekoak, argitalpen programa eta** EEPk Euskaltzaindiari **urterako** ematen dion **diru-laguntza**.